



**Euskaltelek itzulitako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu [www.alcatelmobile.com](http://www.alcatelmobile.com) webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburua osoa. Gainera, beste hauek ere egin ditzakezu webgunean: ohiko galderen erantzunak ikusi, Mobile Upgrade-rekin softwarea eguneratu, eta beste gauza asko.

alcatel 3082<sup>4G</sup>

## Oharra:

Alcatel 3082X modeloari dagokio erabiltzailearen eskuliburu hau.

## Laguntza

Ikus baliabide hauek, ohiko galderei, softwareari eta zerbitzuei buruzko informazio gehiago izateko.

### Ohiko galderak kontsultatzea

Joan hona:

<https://www.alcatelmobile.com/content/faq/>

### Serie-zenbakia edo IMEIa bilatzea

Serie-zenbakia edo IMEIa (International Mobile Equipment Identity) gailuaren kaxan dago. Edo, telefonoan, sakatu \*#06#. edo **Ezarpinak > Araudia eta segurtasuna > IMEI**.

### Bermearen zerbitzua edukitzea

Lehenik eta behin, jarraitu eskuliburu honetako gomendioei. Ondoren, galdetu bezeroarentzako arreta-zerbitzuari, eta ikusi konponketa-zerbitzuei buruzko informazioa, hemen: <https://www.alcatelmobile.com/content/hotline-service-center/>

### Lege-informazioa ikustea

Telefonoan, zoaz hona: **Ezarpinak > Informazioa > Legeak eta segurtasuna**

# Aurkibidea

Erabiltzeko oharrak .....	6
Uhin elektromagnetikoak .....	14
LIZENTZIAK.....	19
informazio orokorra .....	19
<b>1 Zure telefonoa .....</b>	<b>22</b>
1.1 Teklak eta konektoreak .....	22
1.2 Martxan jartzea .....	25
1.3 Pantaila nagusia .....	27
1.4 Aplikazioen zerrenda .....	28
<b>2 Deien erregistroa .....</b>	<b>30</b>
2.1 Nola egin deiak.....	30
2.2 Nola erantzun edo ez onartu deiak .....	31
2.3 Ahots-postontzirako sarbidea.....	32
<b>3 Kontaktuak .....</b>	<b>33</b>
3.1 Kontaktuak ikustea.....	33
3.2 Kontaktuak gehitzea .....	34
3.3 Kontaktuak editatzea.....	34
3.4 Kontaktuak ezabatzea .....	35
3.5 Erabilgarri dauden aukerak.....	35
<b>4 Egutegia.....</b>	<b>37</b>
4.1 Modu anitzeko ikuspegia .....	37

4.2	Beste programa bat gehitzea .....	38
4.3	Gertaera-gogorarazlea.....	39
<b>5</b>	<b>Tresnak .....</b>	<b>39</b>
5.1	Alarma .....	39
5.2	Kalkulagailua.....	39
5.3	Bluetootha.....	39
5.4	Bihurtzea .....	40
5.5	Geurrezko deia .....	40
5.6	Dei-iragazkia.....	40
5.7	Linterna.....	41
5.8	Munduko erlojua .....	41
5.9	Ahots-alarma .....	41
5.10	SIM zerbitzuak.....	42
<b>6</b>	<b>Mezularitza .....</b>	<b>42</b>
6.1	Mezuak idaztea .....	42
6.2	Multimedia-mezuak bidaltzea.....	43
6.3	Mezu bat idaztea .....	43
6.4	Ezarpenak.....	44
<b>7</b>	<b>Multimedia .....</b>	<b>46</b>
7.1	Galeria.....	46
7.2	Grabagailua .....	49
<b>8</b>	<b>Nire fitxategiak.....</b>	<b>49</b>
<b>9</b>	<b>Kamera .....</b>	<b>50</b>
9.1	Kamera.....	50

9.2	Bideoa .....	50
<b>10</b>	<b>Ezarpenak .....</b>	<b>51</b>
10.1	Telefonoaren ezarpenak.....	51
10.2	Deien ezarpenak.....	52
10.3	Profilak .....	54
10.4	Sarea aukeratzea.....	54
10.5	Konexioak.....	54
10.6	Segurtasuna .....	55
10.7	Araudiak eta segurtasuna .....	56
10.8	Fabrikako datuak berrezartzea .....	56
10.9	Informazioa .....	57
<b>11</b>	<b>Osagarria.....</b>	<b>57</b>
<b>12</b>	<b>Telefonoaren bermea .....</b>	<b>57</b>
<b>13</b>	<b>Arazoak eta irtenbideak .....</b>	<b>61</b>
<b>14</b>	<b>Zehaztapenak.....</b>	<b>67</b>

SAR Espainiako estatuan aplikatu beharreko 2,0 W/kg-ko SAR muga betetzen du produktu honek. Gehieneko SAR balio espezifikoak Uhin elektromagnetikoak atalean azaltzen dira.

**alcatel** alcatel Produktua garraiatzean edo gorputzetik gertu daramazunean, erabili horretarako onartutako osagarri bat (estalki bat) edo gorputzetik 5 mm-ra izan, irrati-maiztasunen esposizioei buruzko eginbeharrak betetzen direla ziurtatzeko. Kontuan izan produktuak erradiazioa igor dezakeela deitzen ari ez bazara ere.



#### BABESTU BELARRIAK

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez erabili bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili entzungailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago

## Erabiltzeko oharrak.....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule.

#### ● IBILGAILUKO SEGURTASUNA:

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, gidatzean telefono mugikorra erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku-libreko eramangarria...) erabiltzen denean ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo entzungailuak musika edo irratia entzuteko.

Entzungailuak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea.

Telefonoak erradiazioa igortzen du piztuta dagoenean, eta horrek interferentziak sor ditzake ibilgailuko ekipa elektronikoetan; adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar. Beraz, arazorik ez izateko:

- Ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan.
- Kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari, ibilgailu barruko tresnak telefono

mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

### ● ERABILTZEKO KONDIZIOAK:

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko.

Itzali telefonoa hegazkinetan.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Gailu hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoan edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Errespetatu arauak erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri inoiz telefonoa tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrarian, ipini beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik. Bolumen aplikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Galdetu medikuari eta gailuaren fabrikatzaileari, telefonoaren erabilerak zure gailu medikoaren erabilerarekin interferentziak eragin ditzakeen jakiteko.

Leherketa-arriskua dagoen lekuetan, errespetatu haririk gabeko gailuak (telefonoa edo beste irrati-ekipo batzuk) itzaltzeko seinaleak.

Halakoak dira atmosfera lehergarriak dituzten eremuak, hala nola zerbitzuguneak, erregaiak hartzeko guneak —adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak—, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak —adibidez, erregai-hautsa edo metal-hautsak— dauden eremuak.

Itzali zure telefono mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremu batean zaudenean edo “itzali gailu elektronikoak” edo “itzali bi noranzkoko irrati-aparatuak” idazkunak dauden guneetan, leherketa-eragiketetan interferentziarik gerta ez dadin.

Ez utzi hurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo haiekin jolasten zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketan substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbi batean.

Ez utzi telefonoa kondizio txarrak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, kresala eta abar). Fabrikatzaileak 0°C eta +40°C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

40 °C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, ezin da deitu larrialdi-zenbaki batzuetara. Larrialdi-deiak egiteko, ez egon zure telefonoaren mende soilik.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti, eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren Alcatel bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili. Hala egiten ez bada, TCL Communication Ltd-k eta haren filialek ez dituzte beren gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Ez bota telefonoa udalaren edukiontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo

idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsia-krisirik edo korde galerarik inoiz izan ez dutenei ere gerta dakieke. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideo-joko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsuak aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsuak dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi, eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek izateko arriskua txikitzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez aritu jokoetan telefono mugikorrarekin, eta ez erabili argi distiratsua duen funtziorik,
- ordu oro, gutxienez, 15 minutuko atsedena hartu,
- beti gelako argiak piztuta daudela aritu,
- pantaila begietatik ahalik eta urrunen jarri beti,

- jokoetan ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atseden hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren eskuek, eskumuturrek edo besoek minduta segitzen badute, ez jokatu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:

### ● BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, baliteke erabat debekaturik egotea beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela uler bailiteke. Erabiltzailearen arduraren da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

### ● BATERIA

Aireportuetako araudiaren arabera, zure bateria ez dago kargatuta. Lehenbizi, kargatu.

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.

Bateria erabiltzean, ohar hauek izan behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, eta ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu indarrean dauden ingurumena babesteko legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCL Communication Ltd-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriek ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haien osagaiak berrerabili egingo dira.

Europar Batasuneko herrialdeetan:

Doakoa da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan: herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, ez bota zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

**KONTUZ! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.**

#### ● **KARGAGAILUAK**

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Informazio-tratamendurako araeuekin eta bulegoko segurtasunari dagozkionekin bat datoz zure telefonoaren kargagailuak, eta erabilera horretarako bakarrik diseinatu dira. 2009/125/EE Ekodiseinuari buruzko direktiba ere betetzen dute.

Modeloa: PA-5V550mA-006 / PA-5V550mA-015

/ PA-5V550mA-012/ PA-5V550mA-017/

PA-5V550mA-029/CY050055EU-L/ CY050055UK-L

Sarrerako tentsioa: 100-240 V

Korronte alternoaren sarrerako maiztasuna: 50/60 Hz

Irteerako tentsioa 5,0 V

Irteerako korrontea: 0,55 A

Irteerako potentzia: 2,75 W

Batez besteko efizientzia aktiboa: % 69,0

Energia-kontsumoa kargarik gabe: 0,08 W

## Uhin elektromagnetikoak.....

Telefono mugikorren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 2014/53/EU (RED) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea, batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena, eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

**GAILU HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOENIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU**

Zure telefono mugikorrek irrati-uhinak (uhin elektromagnetikoen irrati-maiztasuna) igorri eta jasotzen ditu, eta nazioarteko araudietan gomendatzen diren uhin elektromagnetikoekiko esposizioari buruzko mugak errespetatzeko diseinatu da. Arau horiek zientzia-batzorde pribatu batek garatu ditu (ICNIRP, Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordea),



eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko segurtasun-tarte garrantzitsu bat barnean hartzen dute, erabiltzaile horien adina edo osasun-egoera edozein direla ere.

Absortzio espezifikoaren tasa (SAR, Specific Absorption Rate) deritzon neurri-unitatea erabiltzen dute uhin elektromagnetikoekiko esposizioari buruzko arauak. Unitate horrek telefono mugikorrek igortzen duten irratimaiztasuna neurtzen du. Gailu mugikorretarako SAR muga 2 W/kg-koa da burutik gertu eta gorputzaren kontra erabiltzeko, eta eta 4 W/kg-koa gorputz-adarren kontra erabiltzeko.

SAR probak potentzia-mailarik altuena igortzen duten telefono mugikorretan egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. Hauek dira SAR balio altuenak, ICNIRP batzordeak modelo honetarako ezarritako arauen arabera:

Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehienezko SAR balioa		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	UMTS 900	0,74 W/kg
Gorputzerako SAR balioa (5 mm)	GSM 900	1,58 W/kg
SAR gorputz-adarrei itsatsita (0 mm)	LTE Band 1	2,79 W/kg

Telefono honen benetako SAR balioak, erabiltzen den bitartean, adierazitako balio horiek baino baxuagoak dira oro har. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Zenbat eta txikiagoa izan telefonoaren potentzia, orduan eta txikiagoa izango da haren SAR balioa.

Gorputzeko SAR probak egiteko, 5 mm-ko tartea utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irradi-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Zuk erabiltzen duzun osagarria baimendua ez bada, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak, FDAk (US Food and Drug Administration, Elikagaiak eta Sendagaiak Kontrolatzeko Estatu Batuetako Erakundea) eta beste erakunde batzuek jakinarazi dute kezkatuta daudenek eta esposizioa murriztu nahi dutenek esku libreko gailu bat erabil dezaketela telefonoa burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko deietan, edo telefonoan igarotzen duten denbora murriz dezaketela.

Informazio gehiago izateko, ikusi [www.alcatelmobile.com](http://www.alcatelmobile.com) gunea.

Hurrengo orri honetan, eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazioa duzu:  
<http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu, eta ez hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke. Entzungailuekin edo USB datu-kablearekin erabiltzean, gailuak zehaztutako jarraibideak bete behar ditu. Beste osagarrien bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta jarri telefonoa gorputzetik 5 mm-ra gutxienez.

Kontuan izan gailua erabiltzen dizunean balitekeela zure datu pertsonal batzuk gailu nagusiarekin partekatzea. Zure ardura da zure datu pertsonalak babestea, eta ez partekatzea baimendurik gabeko gailuekin edo zure gailura konektatutako hirugarrenen gailuekin. Wifia duten produktuen kasuan, konfiantzazko wifi-sareetara bakarrik konektatu Gainera, zure produktua sarbide-puntu gisa erabiltzen dizunean (posible den kasuetan), erabili sareko segurtasuna. Aholku hauek beteta, zure gailura baimendu gabe sartzea saihestuko duzu. Mugikorrek hainbat lekutan gorde dezake informazio pertsonala, adibidez, SIM txartelean, memoria-txartelean eta telefonoaren memorian.

Egiaztatu informazio pertsonal guztia ezabatu duzula gailua birziklatu, itzuli edo bota aurretik. Hautatu kontu handiz zure aplikazio eta eguneraketak, eta instalatu konfiantzazko iturrietatik soilik. Zenbait aplikaziok zure telefono mugikorraren errendimenduari eragin diezaioke, eta informazio pribatura sartu, adibidez, kontuko datuetara, deien datuetara, kokapenaren xehetasunetara eta sareko baliabideetara.

Kontuan izan TCL Communication Ltd-rekin partekatutako datu guztiak datuak babesteko legediari jarraituz gordetzen direla. Hala, TCL Communication Ltd-ek datu pertsonal guztiak babesteko neurri tekniko eta antolaketako neurri egokiak hartzen eta aplikatzen ditu; esate baterako, baimendu gabeko edo legez kanpoko datu-prozesatzearen aurkakoak edo datuok galtzearen edo ustekabeen hondatzearen aurkakoak. Neurri horiek segurtasun-maila egokia emango dute, hauek kontuan hartuz:

- (ii) neurriak inplementatzeak duten kostua,
- (iii) datu pertsonalak prozesatzeak dakartzan arriskuak, eta
- (iv) prozesatutako datuen sentikortasun-maila. Edozein unetan sar zaitezke zure datu pertsonaletan, eta datuok alda eta edita ditzakezu, zure erabiltzaile-kontuan sartuz, zure erabiltzaile-profila bisitatu edo zuzenean gurekin harremanetan jarritz. Guk zure datu pertsonalok editatzea edo ezabatzea nahi baduzu, zure nortasuna frogatzeko eskatuko dizugu beharbada, zure eskaria bete aurretik.

## BAIMENAK.....



MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.



Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira, eta TCL Communication Ltd-k eta haren filialek lizentziapean erabiltzen dituzte marka horiek. Beste marka eta izen komertzial batzuk beren jabeenak dira.

Alcatel 3082 X Bluetooth ID D049911 aitorpena

## Informazio orokorra.....

- **Interneteko helbidea:** [www.alcatelmobile.com](http://www.alcatelmobile.com).
- **Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren zenbakia:** ikus kaxako liburuxkan edo gure webgunean.
- **Fabrikatzailea:** TCL Communication Ltd.

**Helbidea:** 5/F, Building 22E, 22 Science Park East Avenue, Hong Kong Science Park, Shatin, NT, Hong Kong.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango zara posta elektronikoz galderak egiteko.

Irrati-ekipo honek irradi-maiztasun eta potentzia maximoekin funtzionatzen du. Hona hemen datuak:

GSM 900 MHz: 33.5 dBm

GSM 1800 MHz: 30.5 dBm

UMTS B1 (2100 MHz): 23.5 dBm

UMTS B8 (900 MHz): 24 dBm

LTE FDD BI/3 (2100/1800 MHz): 24,5 dBm

LTE FDD BI/20 (2600/800 MHz): 24 dBm

LTE FDD B8 (900 MHz): 23 dBm

LTE FDD B8 (700 MHz): 23,5 dBm

Bluetootha, 2,4 GHz-ko banda: 9.93 dBm

Honen bidez, TCL Communication Ltd-k adierazten du irradi-ekipo honek (Alcatel 3082X modelo) 2014/53/EU Direktiba betetzen duela. CE adostasun-deklarazioaren testu osoa Interneteko helbide honetan dago: [http://www.alcatelmobile.com/EU\\_doc](http://www.alcatelmobile.com/EU_doc)

Irrati-ekipoak ondo funtzionatzea eragiten duten osagarrien eta osagaien deskribapena, softwarearena barne, CE adostasun-deklarazioaren testu osoan irakur daiteke, Interneteko helbide honetan: [http://www.ttpv/www.alcatelmobile.com/EU\\_doc](http://www.ttpv/www.alcatelmobile.com/EU_doc).

## Lapurretaren aurkako babesa<sup>(1)</sup>

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (\*#06# teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin, telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.


## Erantzukizunetatik salbuestea

Litekeena da desberdintasunak egotea eskuliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, zure telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera. Halako desberdintasunik izanez gero, TCL Communicationek ez ditu bere gain hartzen, ez eta desberdintasun horiek eragin ditzaketen ondorioak ere; erantzukizun hori operadorearena bakarrik izango da.


(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

# 1 Zure telefonoa .....

## 1.1 Teklak eta konektoreak



- 1 Entzungailuen konektorea
- 2 Kamera
- 3 Flasha
- 4 MicroUSB ataka
- 5 Bolumena igotzea edo jaitea
- 6 LED adierazlea



#### 1. Erdiko funtzio-tekla

- Aukera bat berresteko (teklaren erdian sakatuta)
  - Labur sakatu: aplikazio-zerrendara joateko (pantaila nagusia)
- #### 2. Ezkerreko funtzio-tekla
- #### 3. Deitzeko tekla
- Telefonoa hartzeko / Deitzeko
  - Sakatu: deien erregistroa irekitzeko (pantaila nagusitik)

#### 4. Eskuineko funtzio-tekla

#### 5. Eseki tekla

- Aurreko pantailara itzultzeko, edo elkarrizketa-koadroa edo aukeren menua ixteko
- Labur sakatuta, deia amaitu
- Luze sakatuta, telefonoa itzali

#### 6. Nabigazio-tekla

- Goiko, beheko, ezkerreko edo eskuineko menura joateko
- Labur sakatuta (itxarote-pantailan):
- Gora/behera: bolumena doitzeko sarbidea
- Eskuinera: profiletarako sarbidea
- Ezkerrera: mezu berria idazteko atalerako sarbidea

#### 7. "5" tekla

- Itxarote-pantailan:
- Labur sakatuta: Markatu "5"
- Luze sakatuta: linterna pizteko/itzaltzeko

#### 8. "\*" tekla

- Itxarote-pantailan:
- Labur sakatuta: "\*" sartzeko
- Luze sakatuta: pantaila blokeatzeko

- Editatzeko moduan:
  - Labur sakatuta: sinboloak txertatzeko
9. “#” tekla
- Itxarote-pantailan
  - Labur sakatuta: Markatu “#”
  - Luze sakatuta: Bibrazio-modua gaitzeko/desgaitzeko
  - Editatzeko moduan:
  - Labur sakatuta: idazteko metodoa aldatzeko.

## 1.2 Martxan jartzea

### 1.2.1 Konfigurazioa

#### SIM txartela jartzea eta ateratzea.


Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, sakatu, eta atera kanporantz.

Itzali telefonoa SIM txartela/mikroSD txartela sartu edo atera aurretik.

#### Bateria kargatzea

Konektatu bateria-kargagailua telefonora, eta entxufatu korronte-hargune batera.

- Ez behartu konektorea korronte-hargunean sartzen duzunean.
- Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
- Korronte-harguneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikorik ez erabiltzea gomendatzen da).



Kontsumoa eta energia-gastua murrizteko, bateria guztiz kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua korronte-hargunetik, eta itzali wifia eta bluetootha. Ezarpenetan, pantailaren distira jaitsi dezakezu eta pantaila desaktibatzeke igaro behar duen denbora murriztu.

### 1.2.2 Telefonoa piztea

Telefonoa pizteko, luze sakatu **Eseki** tekla telefonoa piztu arte. Pantailak segundo batzuk beharko ditu argitzeko.

Ezarpenetan, pantaila pasahitz bidez blokeatzeko aukera ezarri baduzu, pantaila nagusia ikusteko telefonoa desblokeatu beharko duzu.

### Telefonoa lehen aldiz abiaraztea

Telefonoa lehenengo aldiz piten duzunean, ezarpen hauek konfiguratu behar dituzu:

- Aukeratu telefonoaren hizkuntza eta sakatu eskuineko funtzio-tekla hurrengora pasatzeko.

SIM txartela sartuta ez badago ere, zure telefonoak funtzionatu egingo du, eta aukera izango duzu eta telefonoko zenbait funtzio erabiltzeko.

#### 1.2.3 Telefonoa itzaltzea

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu **Eseki** tekla.

### 1.3 Pantaila nagusia



### 1 Egoera-barra

- Egoera/Jakinarazpenak











### 1.4 Aplikazioen zerrenda

Pantaila nagusian, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla** edo **erdiko funtzio-tekla** aplikazio-zerrendara sartzeko.




### 1.4.1 Egoera-barra <sup>(1)</sup>

Egoera-barra pantaila nagusiaren goiko aldean agertuko da. Telefonoaren egoera adierazten duten ikonoak eta jakinarazpen-ohar berriak egoera-barran agertzen dira.

	Testu- edo multimedia-mezu berria		Ez dago SIM txartelik sartuta
	Isilik modua		Alarma konfiguraturuta
	MicroSD txartela instalatuta		Bluetootha aktibatuta
	Estaldua-adierazlea		Entzungailuak konektatuta
	Hegazkin modua		Ahots-mezu berria

### 1.4.2 Pantaila nagusiaren atzealdea aldatzea

- Pantaila nagusian, sakatu **erdiko funtzio-tekla**, aukeratu **Ezarpenak** ikonoa , eta sakatu nabigazio-tekla, hau hautatzeko: **Ezarpenak > Pantaila > Horma paperaren ezarpenak > Horma-paper estatikoa edo Irudi gehiago.**

<sup>(1)</sup> Eskuliburu honetako ikonoak eta irudiak laguntzeko bakarrik dira.

- Hautatu irudi berria, eta sakatu **eskuineko funtzio-tekla**, gordetzeko. Irten, eta irudi berria pantaila nagusian bistaratuko da.


## 2 Dei-erregistroa.....



### 2.1 Deia egitea

Markatu nahi duzun zenbakia, sakatu **deitzeko tekla** edo sakatu **eskuineko funtzio-tekla** kontaktuetako kontaktu bat hautatzeko. Kontaktua hautatzeko, erabili **nabigazio-tekla**ren igotzeko edo jaisteko aukera, eta sakatu deitzeko tekla. Akatsen bat eginez gero, ezabatu okerreko digituak **eskuineko funtzio-tekla** sakatuta. Esekitzeko, sakatu **Eseki tekla**.






## Nazioarteko deiak

Nazioarteko deiak egiteko, bi aldiz sakatu **[\*+]**, “+” ikurra idazteko. Ondoren, idatzi herrialdearen nazioarteko aurrezenbakia; gero, telefono-zenbakia osorik, eta, azkenik, sakatu **deitzeko tekla**.

## Larrialdi-deia

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu **deitzeko tekla**, larrialdi-deia egiteko.

## 2.2 Nola erantzun edo ez onartu deiak



Dei bat jasotzen duzunean:

- Erantzuteko, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla** edo **deitzeko tekla**.
- Ez onartzeko, sakatu **eskuineko funtzio-tekla** edo **Eseki tekla**.

## 2.3 Ahots-postontzirako sarbidea<sup>(1)</sup>

- Luze sakatu **[1☑]**, ahots-postontzira deitzeko.
- Jarraitu ematen zaizkizun jarraibideei, zure kontuko ahots-postontzia ezartzeko.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

# 3 Kontaktuak .....

## 3.1 Kontaktuak ikustea

**Kontaktuak** aukerari esker, aise eta azkar irits zaitezke harremanetan jarri nahi duzun jendearengana.

Funtzio horretara sartzeko, eman pauso hauek:

- sakatu pantaila nagusian **erdiko funtzio-tekla** eta hautatu **Kontaktuak**.
- sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, pantaila nagusian.



- 1 Sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, funtzio gehiagotara sartzeko.
- 2 Sakatu **erdiko funtzio-tekla**, kontaktuaren xehetasunak sartzeko.

- 3 Sakatu **eskuineko funtzio-tekla**, pantaila nagusian.

## 3.2 Kontaktuak gehitzea


Kontaktu-zerrendaren pantailan, hautatu **Gehitu kontaktuak**, edo sakatu **ezkerreko funtzio-tekla** eta hautatu **Aukerak > Berria** informazio zehatza duten kontaktu berriak gehitzeko.



Amaitutakoan, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, gordetzeko.


## 3.3 Kontaktuak editatzea

Kontaktuen zerrendaren pantailan, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, **Aukerak** aukerara sartzeko. Hautatu **Aukerak > Editatu**, eta sakatu **erdiko funtzio-tekla**, editatzeko.



### 3.4 Kontaktuak ezabatzea

Kontaktuen zerrendaren pantailan, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla, Aukerak**-era joateko. Hautatu **Ezabatu kontaktua**, eta sakatu **erdiko funtzio-tekla**, ezabatzeko.



### 3.5 Erabilgarri dauden aukerak

Kontaktuen zerrendan, honako aukera hauek dituzu:

#### Berria

Telefonoan edo SIM txartelean kontaktu berri bat sortzeko.

#### Mezu berria

SMS/MMS mezua bidal diezazkiokezu **Kontaktua** aukeran hautatutako kontaktu bati.

#### Deitu

Hautatutako kontaktuari deitu diezazkiokezu.

#### Ezabatu

Hautatutako kontaktua ezaba dezakezu.

#### Hainbat ezabatzea

Kontaktu bat edo gehiago aldi berean ezabatzeko.

#### Inportatzea/Esportatzea:

- **Kopiatzea**  
Telefonoan edo SIM txartelean gordetako kontaktua kopiatzeko  
Kontaktua telefonoan edo SIM txartelean kopiatzeko
- **Kontaktua inportatzea**  
Kontaktua beste telefono batetik inportatzea
- **Kontaktua esportatzea**  
Telefonoan edo SIM txartelean gordetako kontaktua esportatzeko.

## vCard bidaltzea

Kontaktu bat SMS/MMS/bluetooth bidez bidaltzeko.

## Beste batzuk

- **Markatze bizkorra**

Markaketa bizkorreko kontaktu bat edo gehiago aldi berean konfiguratzeko.

- **Zenbaki pertsonala**

Zure telefonoaren izena eta zenbaki pertsonala ezartzeko.

- **Zerbitzu-zenbakia**

- **Biltegiaren egoera**

SIM txartelean eta telefonoaren libre dagoen espazioa eta erabilia dagoena ikusteko.

# 4 Egutegia .....




Erabili egutegia bileren, hitzordu garrantzitsuen eta abarren segimendua egiteko.

Funtzio honetara sartzeko, sakatu pantaila nagusian **erdiko funtzio-tekla** eta hautatu **Egutegia**.

## 4.1 Modu anitzeko ikuspegia

Ikuspegi hauetan ikus dezakezu egutegia: egunekoa, asteakoa edo hilekoa.

Sakatu **ezkerreko funtzio-tekla** eta hautatu **Aukerak** Egutegia ikuspegiara aldatzeko.



## 4.2 Beste programa bat gehitzea

Sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, egutegiaren edozein ikuspegitatik gertaera berriak gehitzeko.

- Osatu gertaera berri horretarako behar duzun informazio guztia.
- Amaitutakoan, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, gordetzeko.

Egutegiaren pantaila nagusian **ezkerreko funtzio-tekla** sakatzen baduzu, aukera garrantzitsu gehiago izango dituzu.

- **Nola joan egun jakin batera**

Nahi duzun egunera joateko.

- **Ikusi programak**

Sakatu **erdiko funtzio-tekla Egutegiari** erantsitako gertaerak ikusteko.

### 4.3 Gertaera-gogorarazlea

Gertaera baterako gogorarazle bat jarriz gero, etorkizuneko gertaera bistaratuko da pantailan gogorarazpenaren ordua iritsitakoan.

## 5 Tresnak .....



### 5.1 Alarma

Zure telefono mugikorak iratzargailu bat du, eta errepikapen-funtzioa dauka. Bost alarma ezar ditzakezu, ordu desberdinekin.

### 5.2 Kalkulagailua

Sakatu gora, behera, ezkerrera, eskuinera eta erdiko funtzio-tekla, hurrenez hurren, +, -, ×, eta =, hautatzeko.

### 5.3 Bluetootha

Datuak truka ditzakezu, esate baterako, bideoak, irudiak eta audioa, tarte mugatu batean dauden eta

bluetootharekin bateragarriak diren beste gailu batzuekin, lotu ondoren.

### 5.4 Bihurtzea

Pisu- eta luzera-unitateak bihurtzen ditu.

### 5.5 Gezurrezko deia

Funtzio honen bidez, dei simulatu bat sor dezakezu. Hala, egoera deseroso batean, dei-simulazioaren funtzioa aktiba dezakezu norbaitek deitzen dizun eta erantzun beharra daukazu itxurak egiteko.

### 5.6 Dei-iragazkia

Funtzio honen bidez, deien zerrenda beltz bat sor dezakezu.

**Dei iragazkia** aukeraren pantailan, aukera hauek daude:

#### Zerrenda beltza

Zerrenda beltzean kontaktuak gehitzeko:

#### 1. Zerrenda beltza > Aukerak > Berria

- Sartu izena eta zenbakia, edo sakatu **Gorde kontaktu-zerrendako kontaktu bat hautatzeko, eta, ondoren, sakatu ezkerreko funtzio-tekla, gordetzeko.**

2. Zerrenda beltza > Aukerak > Importatu kontaktuak

- **Hautatu eta markatu kontaktuak banan-banan, edo markatu kontaktu guztiak aldi berean Aukerak> Markatu guztiak aukeraren bidez.**

- Aukerak > Ados

## Ezarpinak

Aktibatu/desaktibatu kontaktuetako deien eta mezuen funtzioak zerrenda beltzean.

## 5.7 Linterna

Linterna aktibatzeko edo desaktibatzeko.

## 5.8 Munduko erlojua

Lehenengo erlojuak telefonoa konfiguratzeko duen kokapenaren arabera ordua erakusten du. Beste hiri batzuk gehitu ditzakezu, ordu-eremu haietako ordua ere erakusteko.

## 5.9 Ahots-alarma

Menu honen bidez, ahots-fitxategi bat sor dezakezu, eta alarma gisa ezarri.

## 5.10 SIM zerbitzuak

Telefono hau bateragarria da zenbait zerbitzu-funtziorekin. SIM txartelaren eta sarearen arabera dira elementu espezifikoak. Zerbitzuen menua automatikoki erantsiko da telefonoaren menura sarearekin eta SIM txartelarekin bateragarria denean.

Oharra: Tarifekin eta konfigurazioarekin lotutako gaietarako, jo tokiko sare-operadorera.

## 6 Mezuak .....




Erabili mezuen funtzioa testu-mezuak (SMS) eta multimedia-mezuak (MMS) bidaltzeko eta jasotzeko.

### 6.1 Mezuak idaztea

- **Pantaila nagusia, sakatu erdiko funtzio-tekla** eta hautatu Mezuak.
- Sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, testu-mezuak idazteko.
- Sartu hartzaillearen mugikorreko zenbakia **Hartzailea** barran, edo sakatu **erdiko funtzio-tekla**, hartzailleak gehitzeko.
- Ukitu **Mezu** barra, mezuaren testua idazteko.

- Sakatu **erdiko funtzio-tekla** edo **ezkerreko funtzio-tekla** mezuak bidaltzeko.



## 6.2 Multimedia-mezuak bidaltzea



MMSen bidez bideoklipak, irudiak, argazkiak, kontaktuak eta soinuak bidal ditzakezu. Mezuen pantailan, hautatu **Aukerak > Gehitu** eta hautatu fitxategi atxikia.

SMSak automatikoki MMS bihurtuko dira baldin eta multimedia-fitxategiak (irudia, bideoa, audioa, etab.) eransten badira.

## 6.3 Mezuak idaztea

Edizio moduan, idazteko lehenetsitako hizkuntza espainiera da. Teklatua sakatu dezakezu idazteko modua aldatu eta 1, 2, 3... zenbakietara sartzeko, edo luze sakatu dagokion tekla, nahi duzun zenbakia lortzeko.

Modu prediktiboa erabiliz idatz dezakezu testua, edo # sakatu nahi duzun testu-idazketa konfiguratzeko.

- Testua idazteko modu arruntarekin, sakatu 2etik 9ra arteko zenbaki-teklak hainbat aldiz, nahi duzun karakterea bistaratu arte. Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun tekla berean badago, sakatu hainbat aldiz tekla, kurtsorea agertu arte.
- Sakatu  tekla, "abc--""abc- -> ABC--> 123" moduen artean aldatzeko.
- Puntuazio-zeinu bat edo karaktere bereziren bat gehitzeko, sakatu  tekla.
- Idatzi dituzun letrak edo ikurrak kendu nahi badituzu, sakatu banan-banan ezabatzeko.

## 6.4 Ezarpenak

### SMSaren ezarpenak

- Mezu-zentroa

Mezu-zentroaren zenbakia ikus dezakezu hemen.

- Mezuen balio-epea

Mezuen balio-epea hauta dezakezu. Aukera hauek daude: 1, 6, 24 eta 72 ordu, 1 aste edo maximoa.

- Entrega-txostena

Entrega-txostenak aktibatze edo desaktibatze aukera duzu.

- Erantzuteko bidea

Markatu kontrol-lauki hau, erantzuteko bidea aktibatze.

- Karaktere-kodea

Karaktere-kode bat ezar dezakezu: 7 bit, UCS2 edo Automatikoa.

- Biltegiatze gogokoena

Konfiguratu gordetako mezuen kokalekuaren ibilbidea.

- Nola esportatu SMSak

Konfiguratu zein SMS-ibilbidetatik esportatu nahi duzun.

- Sinadura automatikoa

Aukeratu mezuei sinadura automatikoa aplikatzeko.

- Sinadura

Idatzi sinadura.

### MMSren ezarpenak

- MMSko kontua

Multimedia-mezuetarako datuen kontua hauta dezakezu.

- Jasotze-aukerak

Jasotze-ezarpenak konfiguratu ditzakezu.

- Bidalketa-aukerak

Jasotze-ezarpenak konfiguratu ditzakezu.

- Fitxategiak biltegiatzea

Gordetako MMS fitxategien kokalekuaren bide-izena ezar dezakezu.

- Audio-erreproduktzioa

Audio-fitxategiak erreproduzitzea nahi duzun ala ez ezar dezakezu.

- Balioak berrezartzea.

Telefonoaren jatorrizko balioak berrezartzeko.

## 7 Multimedia .....



### 7.1 Galeria

Argazkiak ikusteko multimedia-erreproduzitzailerak da galeria. Gainera, irudi-eragiketa gehiago ere baditu aukeran.


Funtzio honetara sartzeko, sakatu pantaila nagusian **erdiko funtzio-tekla** eta hautatu **Multimedia > Galeria**.





- 1 Sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, funtzio gehiagotara sartzeko.
- 2 Sakatu **erdiko funtzio-tekla**, hautatutako argazkia ikusteko.
- 3 Sakatu **eskuineko funtzio-tekla**, Hurrengo aukerara joateko.

## Argazkia aldatzea



Argazkiaren pantailan **ezkerreko funtzio-tekla** sakatzen baduzu, aukera gehiago izango dituzu.

- **Pantailaren atzealde gisa ezarri**  
Argazkia pantaila-atzealde gisa ezartzeko aukera ematen du.
- **Pantaila-babesa**  
Argazkia atzeko plano gisa ezartzeko aukera ematen du.
- **Kontaktu-kono gisa ezarri**  
Argazkia kontaktu-ikono gisa ezartzeko aukera ematen du.
- **Ezabatu**  
Hautatutako argazkia ezabatzeko.
- **Partekatu**  
Argazkia MMS edo Bluetooth bidez partekatzeko.
- **Izena aldatu**  
Argazkiaren izena aldatzeko aukera ematen du.
- **Diapositibak**  
Galeriako argazkiak aurkezpen gisa ikusteko.
- **Zooma**

Sakatu **erdiko funtzio-tekla** argazkia handitzeko eta **ezkerreko funtzio-tekla** argazkia txikitzeko.

- **Xehetasunak**

Argazkiari buruzko informazioa kontsultatzeko, hala nola izena, tamaina eta irudi-mota.

## 7.2 Grabagailua

Erabili funtzio hau audio-fitxategiak grabatzeko. Telefonoa WAV eta AMR fitxategiekin bateragarri da. Amaitutakoan, fitxategia automatikoki gordeko da Audioan.

## 8 Nire fitxategiak .....



Funtzio honetara sartzeko, sakatu pantaila nagusian **erdiko funtzio-tekla**, eta hautatu **Arakatzaila**.

Fitxategiak kudeatzeko barneko biltegitarte-eremu bat du telefonoak, eta bateragarria da microSD memoria-txartelarekin. MicroSD txarteleko edukiak edita daitezke. Karpeta berri bat sortu, eta karpetako edo fitxategietako xehetasunak ezabatu, editatu, bilatu, markatu eta ikus ditzakezu.

## 9 Kamera .....




Mugikor honek argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko kamera bat du.

### 9.1 Kamera

Funtzio honetara sartzeko, sakatu **erdiko funtzio-tekla**, eta hautatu **Kamera**.

#### Argazki bat ateratzea

Pantailak bisorearen funtzioa egiten du. Jarri objektua edo paisaia bisorean, eta sakatu **erdiko funtzio-tekla** argazkiak egin eta **Gorde** funtzioa aktibatuta dagoenean automatikoki gordetzeko, edo sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**  gordetzeko.

### 9.2 Bideoa

Bideo bat grabatzea

- Sakatu **nabigazio-tekla**ren eskuineko aldea, bideo modutik kamera modura pasatzeko.
- Sakatu **erdiko funtzio-tekla**, bideo bat grabatzeko.
- Amaitutakoan, sakatu **ezkerreko funtzio-tekla**, gordetzeko. Fitxategia ikusteko, hautatu **Aukerak > Ikusi bideoen direktorioa**.

# 10 Ezarpenak .....



Funtzio honetara sartzeko, sakatu pantaila nagusian **erdiko funtzio-tekla** eta hautatu **Ezarpenak**.

## 10.1 Telefonoaren ezarpenak

Telefonoaren ezarpenak aldatzeko, hautatu Telefono- ezarpenak, eta aukera hauek dituzu: pantaila, eguna eta ordua, widgeten barra, piztu/itzali automatikoki eta hizkuntza.

- **Pantaila**

Funtzio honen bidez, hauen ezarpenak egin ditzakezu: pantaila-atzealdea, pantaila-babesa, kontrastea, atzeko argia eta teklatuaren argiztapen-denbora.

- **Ordua eta eguna**

Egunaren eta orduaren ezarpenak alda ditzakezu; besteak beste, 12 edo 24 orduko formatua eta dataren formatua (urtea-hilabetea-eguna / hilabetea-eguna-urtea / eguna-hilabetea-urtea). Gainera, ordua automatikoki egunera dadin hauta dezakezu, **Eguneratu ezarpenak > Eguneratu ordua automatikoki** aukeran.

- **Widget-barra**

Hautatu Piztu/Itzali pantaila nagusian widgetak aktibatzeko edo desaktibatzeko. Idatzi **Editatu Widgetak**

pantaila nagusian zein widget agertzea nahi duzun hautatzeko.

- **Automatikoki piztea/itzaltzea**

Funtzio honekin mugikorra pizteko eta itzaltzeko orduak programatu ditzakezu.

- **Hizkuntza ezarpenak**

Mezuetako hizkuntza hautatzeko. **Pantailako hizkuntza** eta **testua idazteko hizkuntza** hauta ditzakezu menu honetan.

## 10.2 Dei-ezarpenak

- **Dei-desbideratzea**

Aktibatu/desaktibatu edo egiaztatu ahots-postontzirako deiak edo zenbaki jakinen deiak desbideratzearen egoera. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

**Dei guztiak desbideratzea:** dei guztiak sistematikoki desbideratzea.

**Linea okupatuta dagoela deiak desbideratzea:** linea okupatuta badago. **Erantzunik ez badago deiak desbideratzea:** erantzun nahi ez baduzu.

**Erabilgarri ez badago desbideratzea;** sare-estaldurarik ez badu.

**Desbideratze guztiak ezabatzea**

- **Deia zain**

Aktibatu/desaktibatu sartzen den bigarren deia bip baten bidez jakinaraztea. Gainera, zain dauden deien egoera egiazta dezakezu.

- **Dei murriztuak**

Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

**Irteerako dei guztiak**

Ezin da deirik egin.

**Sarrerako dei guztiak**

Ezin da deirik jaso.

**Roaming bidez jasotako deiak**

Sarrerako dei guztiak murriztuta egongo dira roamingean.

**ISD deiak**

ISD dei guztiak murriztuta egongo dira.

**Roaming bidez egindako deiak**

Nazioarteko irteerako dei guztiak blokeatzeko, ordainketa-herrialdera egindakoak izan ezik.

**Debeku guztiak deuseztatzea**

Deien blokeo guztiak desaktibatzeke.

- **Identitatea ezkatzea**

Hiru aukera dituzu: identitatea ezkatzea, zenbakia erakustea edo sareak zure identitatea kontrola dezan uztea.

- **Beste batzuk**

Menu honetan hauek aktibatu eta desaktibatu ditzakezu: **Deien iraupenaren abisua**, **Erantzun SMSari** **bukatu ondoren** eta **Grabatu ahots-deiak automatikoki**.

## 10.3 Profilak

Menu honetan, soinuaren modua konfiguratu dezakezu: **Normala**, **Desaktibatu soinua**, **Dardara** edo **Hegaldi** modua.

## 10.4 Sarea

Sarerako konexioa aldatu egin daiteke: **Eskuz** edo **Automatikoa** jar daiteke.

## 10.5 Konexioak

- **Sare-kontua**

Sare-kontu bat defini dezakezu.

- **Datu mugikorrek**

Zure beharren arabera aktiba/desaktiba dezakezu datu-konexioa.

- **Roamingeko datuak**

Datuak atzerrian zaudela erabiltzean.

- **Sare-mota gogokoena**

**4G/3G/2G Automatikoa**, **3G/2G Automatikoa**, **2G bakarrik** edo **3G bakarrik** hauta dezakezu gogoko sare-mota gisa.

- **4G deia**

Zure gailua VoLTE funtzioarekin bateragarria da. Markatu laukia aktibatzeke. Jar zaitetz operadorearekin harremanetan informazio gehiago eskuratzeko.

## 10.6 Segurtasuna

Zure telefonoa babesteko, PINa eta pasahitza aktibatu eta alda ditzakezu. Lehenespenez, hauxe dago jarrita: 0000. Funtzio honek aukera ematen du, halaber, zure telefonoko deiak blokeatzeko, **markatze finkoko zenbakien** PIN2a aktibatuta.

- **PINa**

Telefonoa pizten duzun bakoitzean SIM txartela babesteko kodea eskatuko dizu.

- **PIN2a aldatzea**

SIMaren PIN2 kodea markaketa finkoa (FDN) eta markaketa finkoarekin lotutako eragiketak aktibatuzko erabiltzen da. Hautatu hemen beste bat jartzeko (4-8 digitu).

- **Telefonoa blokeatzea**

Telefonoa pizten duzun bakoitzean, desblokeatzeko kodea eskatuko dizu.

- **Telefonoaren pasahitza aldatzea**

Telefonoaren pasahitza aldatzeko (aurrez ezarritakoa 0000 da).

- **Pribatutasuna**

Aplikazioak blokeatzeko. Sartu pasahitza (aurrez ezarritakoa 0000 da), eta markatu kontrol-laukia hauen

blokeoa aktibatuzko: **Dei-erregistroa, Mezuak, Kamera, Kontaktua, Nire fitxategiak, Egutegia, SD txartela, Audio-erreproduzitzaila eta Bideo-erreproduzitzaila.**

- **Teklatuaren blokeo automatikoa**

Teklatua automatikoki blokeatzeko aukera aktibatuzko/desaktibatuzko, eta ordua doitzeko.

- **Markaketa finkoko zenbakia**

Telefonoa “blokeatzeko” aukera ematen du, zenbaki jakin batzuk edo aurrezenbaki jakin batzuk dituzten zenbakiak bakarrik markatu ahal izateko. Funtzio hori aktibatuzko, PIN2 kodea beharko da nahitaez.

## 10.7 Arauak eta segurtasuna

Telefonoari buruzko informazioa kontsultatu dezakezu, besteak beste: **produktuaren modeloa, fabrikatzailearen izena eta helbidea, IMEI zenbakia eta erreferentzia komertziala.**

## 10.8 Fabrikako datuak berrezartzea

Telefonoaren ezarpenetan, balio lehenetsiak berrezartzeko. Azken erabiltzailearen datuak ezabatu egingo dira. Sartu pasahitz lehenetsia (0000), berrezartzea edo berrabiaraztea berresteko.

## 10.9 Informazioa

Erabiltzailearen **privatutasuna eta baldintzak** egiazta ditzakezu.

# 11 Osagarriak .....

Osagarri estandarrak

- Bateria
- Kargagailua
- Eskuliburu laburra
- Produktuaren segurtasunari buruzko informazio-liburuxka
- Karga-euskarria



Erabili gailuarekin datozen Alcatelen bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik.

# 12 Telefonoaren bermea .....

Zure telefonoak bi (2) urteko<sup>(1)</sup> bermea du, jatorrizko fakturan ageri den erosketaren datatik zenbatzen hasita,

erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEIa, data eta saltzailea. Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin bada, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren pieza bat) konpondu edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek hiru (3) hilabeteko bermea dute akats bererako. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriak arrazoi hauengatik izaten dituzten akatsak:

1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzea.

<sup>(1)</sup> Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren arabera izango da telefono mugikorren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bitzta erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

- 2) TCL Communication Ltd-k emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzea.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCL Communication Ltd-k edo haren filialek edo baimendutako mantentze-lanetako zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egiteagatik.
- 4) TCL Communication Ltd-ek baimendutakoak ez diren pertsonak software- edo hardware-aldaketak edo -ezarpenak egin badituzte.
- 5) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCL Communication Ltd edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badie.


Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko errekamazioaren bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (91 038 96 72) edo helbide honetara idatziz:

TCL Communication Europe SAS  
Immeuble Le Capitole Pare des Fontaines  
55, avenue des Champs Pierreux  
92000 Nanterre  
Frantzia

# 13 Arazoak eta irtenbideak...

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik argibide hauei kasu egitea gomendatzen da:

- Bateria guztiz kargatzea gomendatzen da ( ) , funtzionamendu optimoa lortzeko.
- Ez gorde datu-kantitate handirik telefonoan, horrek funtzionamenduari eragin baitiezaioke.

Egiaztatu puntu hauek ere:

## Telefonoa ezin da piztu edo blokeatuta dago

- Begiratu bateriaren kontaktuak nola dauden, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa.
- Begiratu bateriaren kargatze-maila, eta utzi kargatzen gutxienez 20 minutuz.

## Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Berrabiarazi telefonoa, **Eseki tekla** luze sakatuta.
- Atera bateria, eta sar ezazu berriro. Ondoren, berrabiarazi telefonoa.

## Telefonoa bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu ekipoa blokeatuta dagoela erabiltzen ari ez zarenean, eta ziurtatu ez duzula ustekabean itzali, **Eseki tekla** sakatuz blokeatzen ari zarela.

- Begiratu bateriaren kargatze-maila.

## Telefonoa ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu **Alcatel** bateria eta kaxako kargagailua erabiltzen ari zarela.
- Egiaztatu bateria zuzen sartuta dagoela, eta, beharrezkoa bada, garbitu bateriaren kontaktua. Sartu egin behar da kargagailua konektatu aurretik.
- Egiaztatu bateria ez dagoela guztiz deskargatuta; denbora luzez egon bada deskargatuta, ia 20 minutu igaro daitezke pantailan bateriaren karga adierazten duen ikonoa agertu arte.
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C eta +40°C bitartean).
- Atzerrian, begiratu tentsio-sarrerarekin bateragarria den.

## Nire telefonoa ez da konektatzen inolako saretar, edo “Zerbitzurik gabe” bistaratzen da

- Begiratu telefono mugikorrak beste sarearen bat aurkitzen duen beste toki batean.
- Egiaztatu sarearen estaldura, operadoreari galdetuta.
- Egiaztatu SIM txartela baliozkoa dela, operadoreari galdetuta.
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k).
- Sareak gainkarga baldin badu, saiatu berriz geroago.



## **Telefonia ezin da Internetera konektatu**

- Egiatzatu IMEI zenbakia (sakatu \*#06#) kaxan edo bermean agertzen den bera dela.
- Egiatzatu zure SIM txartelaren Interneteko sarbide-zerbitzua eskuragarri dagoela.
- Begiratu telefonoaren Interneteko konexioaren doikuntzak.
- Ziurtatu sare-estaldura duen toki batean zaudela.
- Saiatu geroago edo beste toki batetik konektatzen.

## **SIM txartel baliogabea**

- Egiatzatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen.
- Egiatzatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

## **Ezin da deia egin**

- Egiatzatu markatu nahi duzun zenbakia markatu dizula eta sakatu deitzeko tekla.
- Nazioarteko deietarako, begiratu herrialdeko/eremuko kodeak.
- Egiatzatu telefonia sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela.
- Egiatzatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM

txartelaren baliozkotasuna eta abar)

- Egiatzatu ez dituzula irteerako deiak debekatu.
- Egiatzatu zure telefonia ez dagoela hegazkin-moduan.

## **Ezin da dei bat jaso**

- Egiatzatu telefonia piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela).
- Egiatzatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiatzatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu.
- Egiatzatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu.
- Egiatzatu zure telefonia ez dagoela hegazkin-moduan.


## **Solaskidearen izena edo zenbakia ez da bistaritzen deia jasotzean**

- Egiatzatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela.
- Solaskideak ez du ematen bere izena edo zenbakia.

## **Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen**

- Egiatzatu SIM txartela ez dagoela kaltetuta.
- Egiatzatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak.

### Deien soinuaren kalitatea txarra da

- Deia egitean, **bolumena igotzeko eta jaisteko tekla**ren bidez doitu dezakezu bolumena.
- Begiratu seinalearen intentsitatea .
- Egiaztatu hargailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

### Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera.
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela behar **Alcatel**en osagarriren bat.

### Nire kontaktuetako zenbaki bat hautatzen dut, baina ezin dut markatu

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula.
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula.

### Ezin diot kontaktu bat gehitu nire kontaktuen zerrendari

- Ziurtatu SIM txartela ez dela iritsi gehieneko kontaktukopurura; ezabatu fitxategiak, edo gorde fitxategiak telefonoaren kontaktuetan.

### Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

### Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia ondo sartuta dagoela.
- Sarea okupatuta badago, saiatu geroago.

### Ezin dut MMSrik bidali edo jaso

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon liteke.
- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez, eta begiratu MMS parametroak.
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua.
- Saiatu berriz aurrerago; zerbitzari-zentroa beteta egon liteke.

### SIM txartelaren PINa blokeatuta dago

- Jarri harremanetan operadorearekin, desblokeatzeko PUK kodea lortzeko.

### Besteek ezin dute detektatu telefonoa bluetooth bidez

- Egiaztatu bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat
- Egiaztatu bi telefonoak bluetootharen atzimate-eremuan daudela.

# 14 Zehaztapenak .....

<b>Prozesadorea</b>	A 7 prozesadorea, nukleo bakarrekoa, 1.0 GHz-ekoa
<b>Plataforma</b>	UMS 9117
<b>Memoria</b>	128 MB-ko ROM memoria + 64 MB-ko RAM memoria
<b>Neurriak (luzera x zabalera x lodiera)</b>	106,1 x 52,2 x 19,25 mm
<b>Pisua</b>	109 g
<b>Pantaila</b>	2,4 hazbeteko LCD pantaila nagusia
<b>Sarea</b>	GSM 900/1800 UMTS BI/8 LTE BI/3/7/8/20/28 (osoa) Maiztasun-banda eta datuen abiadura operadorearen araberakoak dira.

<b>Konektagarritasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• 5.0 bluetootha</li><li>• 3,5 mm-ko audio-konektorea</li><li>• MikroUSBa</li></ul>
<b>Kamera</b>	Atzeko kamera, 1,30 megapixelexoa (software bidez hobetua)
<b>Audio-formatu bateragarriak</b>	AAC, AMR-NB, AMR-WB.
<b>Bateria<sup>1</sup></b>	Ahalmena: 1380 mAh
<b>Zabaltzeko arteka</b>	microSD™ memoria-txartela (mikroSD txartela ez dago sartuta)

**Oharra:** Zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.

<sup>(1)</sup> Jatorrizko bateriari segurtasun-azterketa zorrotzak egin zaizkio, kalifikazio-estandarrak bete ditzan; jatorrizkoak ez diren bateriak erabiltzea arriskutsua izan daiteke. <?> 1Jatorrizko bateriari segurtasun-azterketa zorrotzak egin zaizkio, kalifikazio-estandarrak bete ditzan; jatorrizkoak ez diren bateriak erabiltzea arriskutsua izan daiteke.

